

## Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektorearen salmentak %6 gehitu dira 2023 osoan

**Urteko azken hiruhilekoan, salmentak %2,5 gehitu dira 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean**


2023. urte osoan, Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektorean prezio finkoko salmentak %6,0 igo dira 2022. urtearen aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektorean sektore hauek sartzen dira: *Garraioa eta biltegiatzea, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak, Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, eta Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak.*

Urte osoan bilakaera positiboa izan da sektore guztietan, *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean izan ezik; izan ere, 2023an salmentak 2022an erregistratutakoak baino %0,9 txikiagoak izan dira.

2023an emaitza positiboak izan dituzten gainerako sektoreen artean, *Garraioa eta biltegiatzea* nabarmentzen da, urte osoan %11,6ko hazkundearekin. *Informazioa eta komunikazioak* sektorean salmentak %5,2 gehitu dira 2022aren aldean, eta *Ostalaritzan* %5,0. *Jarduera profesional, zientifiko eta tekniko*en sektorean %0,7ko igoera izan da.

### Beste merkatu zerbitzu batzuen indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

2023an, lurralde historikoen arabera, salmenta-indizeak %9,8 egin du gora Gipuzkoan, %7,0 Araban eta %3,7 Bizkaian.

2023ko laugarren hiruhilekoan ikusitakoari erreparatuta, Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentak %2,5 igo dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan eta egutegiaren ondorioak kenduta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaroen arabera eragina kenduta, prezio finkoetan egindako salmentek ez dute inolako aldaketarik izan (hiruhileko arteko tasa: %0,0).

Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektorearen barruan, urteko azken hiruhilekoan salmenta errealean urte arteko susperraldia gertatu da, *Informazioaren eta komunikazioen* sektoreak (%8,1) eta *Ostalaritzak* (%4,6) bilakaera ona izan dutelako. *Garraio eta biltegiatze* sektorean eta *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* ere salmentek joera positiboa izan dute urteko laugarren hiruhilekoan, %1,5 eta %1,3ko urte arteko hazkundeekin, hurrenez hurren. *Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean, aldiz, salmentak %1,1 jaitsi dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, urtaroen eragina kenduta, salmentek behera egin dute, balio errealean, *Ostalaritzan* eta *Garraio eta biltegiatzean*, %1,3 eta %0,1, hurrenez hurren. *Informazioaren eta komunikazioen* sektorean, aldiz, salmentak %1,4 igo dira hiruhileko artean, eta *Administrazio-jardueretan eta zerbitzu lagungarrietan* %0,8. *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako* salmentak, azkenik, aurreko hiruhilekoan ikusitako maila berean kokatu dira (hiruhileko arteko %0,0ko tasa).

## Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Behin-behineko datuak. 2023/IV

|                                                    | Prezio finkoak |             |             |
|----------------------------------------------------|----------------|-------------|-------------|
|                                                    | t / t-4        | t / t-4     | At / A(t-4) |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                             | <b>2,5</b>     | <b>0,0</b>  | <b>6,0</b>  |
| Garraioa eta biltegiatzea                          | 1,5            | -0,1        | 11,6        |
| Ostalaritza                                        | 4,6            | -1,3        | 5,0         |
| Informazioa eta komunikazioak                      | 8,1            | 1,4         | 5,2         |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 1,3            | 0,0         | 0,7         |
| Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak  | -1,1           | 0,8         | -0,9        |
| <b>LURRALDE HISTORIKOAK</b>                        |                |             |             |
| Araba/Álava                                        | 2,1            | -0,2        | 7,0         |
| Bizkaia                                            | 2,6            | 0,2         | 3,7         |
| Gipuzkoa                                           | 2,3            | -0,3        | 9,8         |
| <b>ENPLEGUA</b>                                    | <b>-0,1</b>    | <b>-0,2</b> | <b>0,5</b>  |

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Otsailaren 16a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoka, salmenta-indizea %2,6 igo da Bizkaian, aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean, %2,3 Gipuzkoan eta %2,1 Araban. Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldiz, Bizkaian salmentak %0,2 hazi dira, baina Araban eta Gipuzkoan %0,2 eta %0,3 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko zerbitzu horietako enplegatuen indizea %0,1 jaitsi da 2023ko laugarren hiruhilekoan urte artean, eta %0,2 hiruhileko artean.

## **INFORMAZIO-OHARRA**

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea **%93,3ko estaldurarekin** kalkulatu da.

---

### **Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*